

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Funtsezko jarduerak enpresa batek egin behar dituen beharrezko jarduerak dira, balio proposamena funtziona dezan. Magyk *Euskalbet*-en funtsezko jarduera aplikazio edo plataforma sareko jarduera bezala funtzionatzea da. Gure enpresa aplikazio eta web gune bat da eta beraz, lehentasuna eman behar diogu bertan egiten ditugun mugimendu guztiei: aplikazioaren kudeaketa, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak ere.

Enpresa aurrera joan dadin, beharrezkoa da gestio egokia egitea eta horretarako hainbat gauza egitea pentsatu dugu: Hasteko bakoitza egiten dakiena egitea da. Bakoitza bere indarguneetan lan egitea komenigarria delako; bezeroei arreta berezia ematea, bestelako aplikazio batera joan ez daitezen; hori lortzeko astero, planifikazio zehatza egingo dugu.

Horretaz gain, aplikazioa eguneratua egotea garrantzitsua da. Horretarako, etengabeko mantenua egingo dugu, merkatua ateratzen diren eta erabilgarriak izango diren erremintak erabiliko ditugu, aplikazioaren funtzionamendua hobetzeko. Gainera, gure bezeroen laguntza eskatuko dugu noizean behin, aplikazioa haiek erabiltzen baitute eta badakite zer hobe daitekeen.

Apustuen kasuan, gure bezeroen iritziak hartuko genituzke kontuan. Horri esker, baliteke aplikazioa hobetzea eta esperientzia hobe ematea, eta, aldi berean, gehiago gozatzea aplikazioa erabiliz.

Amaitzeko, promozioari lehentasuna eman diogu ere, eta gure hasierako inbertsioaren ehuneko handi bat bertan inbertitu dugu. Promozio egokia eta zehatza egitea garrantzitsua da merkatuan ezagunarazteko. Enpresa berri batetik jasotzen den lehen aburua garrantzitsua da, eta gehienetan erabakagarriena. Gustatzen bazaie deskargatuko dute, bestela ez dute inoiz egingo. Beraz aplikazio deskarga dezaten, bere berri kirol ekitaldietan zein sare-sozialetan izango dute, eslogan eragarkari batekin: *“Edozein momentuan, edozein tokian, bai kirola bai dirua”*

Gainera, aplikazio bat daramagunez batzuentzat saila izan ahalko litzake hori gerta ez dadin geure giza-jarduera prest dago arazo hauek konpontzeko.

